



SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2018KO AZAROAREN 5EKOA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA; HONEZ BIDEZ, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN 2018.URTERAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN 2018KO URTARRILAREN 15EKO AGINDUA ALDATZEN DA.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua ezartzen duenez, *“Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lotu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea”*. Artikulu horrek Estatuko oinarriko legeria izaera du.

Aurrekoa betetzeko, 2018ko urtarrilaren 15ean, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak agindua eman zuen Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzen zuen 2017ko azaroaren 13ko Agindua indarririk gabe utziz.

Plan Estrategikoan jasotzen diren diru-laguntzetako bat seme-alabak dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzak dira, uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuaren, maiatzaren 30eko 109/2006 Dekretuaren, abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuaren eta martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera.

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duen uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuaren bidez (2018ko abuztuaren 6ko EHAA, 150. zk.), besteak beste, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen lerroak hedatu ziren.

Arau horren onarpenaren ondorioz, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen Plan Estrategikoko eranskinek ez dute ondo islatzen egungo egoera. Horregatik, aldatu behar dira.

Zehazki, aldaketak “seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak” izeneko 25. diru-laguntzaren lerroaren 2, 3 eta 4 eranskinei eragiten die.

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, eta Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) emandako eskumenen arabera, apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuarekin lotuta (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau





EBAZTEN DUT

Lehena.- Aldaketak egiten dira Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 15eko Aginduaren eranskinean, zehazki "Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak" izeneko 25. diru-laguntzaren lerroaren 2, 3 eta 4 eranskinetan. Izan ere, eranskinok jasota daude aipatutako 2018ko urtarrilaren 15eko Aginduan, zeinaren bidez onartua geratu baitzen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, eta indarrik gabe utzi Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2017ko azaroaren 13ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuena.

Eransten zaio Agindu honi aipatutako 2, 3 eta 4 eranskinetik izango duten behin betiko bertsioa, jasota geratuko dena 25. diru-laguntzaren lerroan ("Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak").

Bigarrena.- Agindu hau jakinarazteko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean argitaratuko da, eta aplikatuko zaio ordenamendu juridikoak informazioaren eta gardentasunaren mesedetan jasotzen duen xedapen oro

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 5a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ



2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

1. helburu estrategikoa: familietako kideak zaintzeak eta familiek beren familia-proiektuak garatzeak zuzenean edo zeharka sortutako kostuak konpentsatzea.

Diru-laguntzen 25. lerroa: seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak.

Organoa: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza.

1. programa: (3124 Familia eta Komunitate Politika) Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak.

1. helburua: seme-alaben jaiotzarekin, adopzioarekin, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzarekin edo tutoretzarekin lotutako behar ekonomikoei erantzuten laguntzea (ardurapeko seme-alaba bakoitzeko).

1. ekintza: diru-laguntzen espedienteak kudeatzea eta ebaztea.

1. adierazlea: lehen seme-alabarengatiko laguntzak (9.772).

2. adierazlea: bigarren seme-alabarengatiko laguntzak (21.138).

3. adierazlea: hirugarren seme-alabarengatiko edo hurrengoengatiko laguntzak (11.342).

2. helburua: seme-alaben erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetza anitz, tutoretza anitz edo nazioarteko adopzio bakun nahiz anitzen ondorioz sortzen diren behar ekonomiko bereziei erantzuten laguntzea.

1. ekintza: diru-laguntzen espedienteak kudeatzea eta ebaztea.

1. adierazlea: erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetza anitz, tutoretza anitz eta nazioarteko adopzio bakun nahiz anitzengatiko laguntzak (587).

31.071.814 €

34.522.050 €

3. helburua: laguntzen xede diren ardurapeko seme-alabei aitortutako desgaitasun-egoeren (%33koa edo handiagoa) edo mendekotasun-egoeren ondorioz sortzen diren behar ekonomiko bereziei erantzuten laguntzea (ardurapeko seme-alaba bakoitzeko laguntzak bikoiztea).

1. ekintza: diru-laguntzen espedienteak kudeatzea eta ebaztea.

1. adierazlea: %33ko edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa (772).

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.

	2017		2018	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
1. helburu estrategikoa: familietako kideak zaintzeak eta familiek beren familia-proiektuak garatzeak zuzenean edo zeharka sortutako kostuak konpentsatzea.				
Diru-laguntzen 25. lerroa: seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak.				
Organoa: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza.				
1. programa: (3124 Familia eta Komunitate Politika) Seme-alabak dituzten				
familientzako diru-laguntzak.				
4. kapitulua:	31.071.814€	100%	34.522.050€	100%
7. kapitulua:	0	0%	0	0%
Guztira:	31.071.814€	100%	34.522.050€	100%
4. kapitulua, guztira 4:	31.071.814€	100%	34.522.050€	100%
7. kapitulua, guztira:	0	0%	0	0%
Diru-laguntzaren lerroa, guztira:	31.071.814€	100%	34.522.050€	100%



4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta diru-laguntzak emateko prozedura.

<p>1. helburu estrategikoa: familietako kideak zaintzeak eta familiek beren familia-proiektuak garatzeak zuzenean edo zeharka sortutako kostuak konpentsatzea.</p>	
<p>Diru-laguntzen 25. lerroa: seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak.</p>	
<p>Organoa: (3124 Familia eta Komunitate Politika) Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza.</p>	
<p>1. programa: seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak.</p>	
<p>Sektore hartzaileak</p>	<p>Familia-unitatea osatzen duten aitak edo amak.</p>
<p>Laguntzak emateko prozedura</p>	<p>Norgehiagoka ez den prozedura. Laguntzak Familiei laguntzeko Legearen (abenduaren 12ko 13/2008 Legea) II. Tituluan daude aurreikusita, familiei babesa, arreta eta laguntza emateko neurriei buruzkoan, eta zehazkiago, I. Kapituluari. Hain zuzen, lege-testu horren 8. artikuluan eskubide subjektibo gisa taxutzen dira, baldin eta bete beharreko baldintzak betetzen badira. Laguntza-eskaerak aurkezteko epea urte osoan dago zabalik. Publikotasun-printzipioa betetzearren, familia-politikaren arloan eskudundutako Sailak, sailburuaren Aginduaren bitartez, urteik urtera ematen du laguntza horiek finantzatzeko aurrekontu-zuzkiduraren berri, edo, hala badagokio, zuzkidura hori eguneratetik eratorriko den zenbatekoaren berri. Laguntzen onuraduna benetan bizi beharko da, eta erroldan agertu, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan, eskaera aurkeztean den eguna baino urtebete lehenagoetik gutxienez. Horrez gain, eskaera aurkezterako Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi eta erroldatuta dagoen orok jaso ditzake laguntza horiek, aurreko hamabi hilabeteetan bertan etengabe bizi ez izanagatik eta erroldatuta ez egonagatik ere, baldin eta egiaztatzen badu azken hamar urteetan bost urte segidan eman dituela Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan diren seme-alabarekin erroldatuta egon beharko du, bai eta familia-unitatearen eraketa zehazteko zenbatutako seme alaba guztiekin ere. Emakidaren aurretik justifikatu behar dira jasotzeko baldintzak betetzen direla, eskaera aurkezteko unean egiaztagiria aurkeztuz. Laguntzen esleipena edo ukapena organo kudeatzaileko zuzendariaren ebazpen zehatzaren eta bereziaren bidez egingo da. Prozesu hori modu jarraituan egingo da, eskabideak jasotako ordenaren arabera.</p>